


Astekaria




elgoi



TRINITATE JAIAK

10 urte eta gero...



M A P F R E

ASEGURU ETXEA

San Frantzisko 40 behea. ☎ 74 05 82 - 20870 ELGOIBAR

La Boutique del pan

San Bartolome 6. ELGOIBAR




- **Zer eratako generoa daukazue?** Ogi klase ezberdinak, boileria, enpanada gailegoak, Galiziako ezitia, Santiago tarta, ardoak, txerrikiak, kontserbak, izozkiak, gozokiak eta bertoko produktuak.

- **Galiziako produktuak al dira gehien saltzen direnak?** Denetarik saltzen da, baina jendeak oso estimatuak ditu batez ere, ogi biribila, enpanadak eta pottokoa.

- **Zergatik estimazio berezi hori?** Ogia adibidez, hurrengo egunean oraindik fresko dagoelako.

- **Igandetan irekiko al duzue?** Bai, astegunetan goizez 8etatik 1era bitartean daukagu irekita eta arratsaldez 5etatik 8ak arte. Larunbat goizetan 8etatik 2etara eta igandetan, larunbatean bezala, goiz osoan zehar.



**IREKI
BERRIA**

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi, Izaskun Elizburu.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:

Maitte Rementería.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maitte Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maitte Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Zinegotziei gutuna

Jadanik ezagunak zaizkigun emaitzak sortu dituzten hauteskundeak ospatu direlarik, lehenbizi Udaletxerako ordezkari berriak zoriundu nahi nituzke, eta agiriko arrazoiengatik GILLERMO GARATE bereziki, beraiengan ezarri den konfidantzagatik. Bestalde, bizkarreratu zaien ordezkari lan horretan herrikide guztien onerako beharko den ahalik eta arrakastarik handiena izan dezaten opa nahi nieke.

Lehentasunak ezartzearen bitartez espero arrakasta hori ondorengo gogoeta hauetan sustraitu beharko litzateke: Elgoibar betidanik izan da eta egun ere bada herrialde industrial. Halaz ere, urteetan barrena kolpatzen ari zaigun krisialdi ekonomiko larria, gure lantegi askotan ikus daitezkeen etengabeko galeretan eta langile kopuruaren murrizketan gauzatu dena, (SIGMA dugu azken adibiderik nabarmenena), herriko agintariak axola gabe ezin utzi ditzakeen lanpostuen suntsidura eragiten ari da.

Ondorioz, agintariak elgoibartarren ongizaterik zabalena aurkitzeko daudelarik, langabezia eta desindustrializazio prozesuari buelta emateko deituak daude, herriko lan merkatuaren eta herriko ekonomiaren eragile dinamizatzaile lanaren erantzukizuna bereganatuz, bai eta

betidanik eraman izan den politika asistentzialaren garapenari jarraituz ere.


Beharrezkoa deritzodan lehentasun bat eskainiz eta beste edozein Udal bulegoren gaineratik (kontsumitzailearen informaziorako bulegoa e.a.) LANPOSTUAK gauzatzeko UDAL AGENTZIA bat sortzea litzateke lehen eginkizuna. Honekin Udalaren arreta merezi duten bi behar beteko lirateke: herriko enpresei aurrez sailkaturik dagoen lagun multzo baten aukera eskaintzea batetik, eta elgoibartar langabetuen argibide eta norabide, motibazio eta kualifikazio maila igotzea bestetik, langabetuei lanpostu bila ibiltzeak dakarrien kostua baztertuz.

Elgoibarko ekonomiaren errehabilitazioa, urteetan zehar ezaugarri izan dugun izpiritu saiakor hori bultzatuz lortuko lukete udal agintariak; guzti hori enpresa ideien lehiaketak bultzatuz, eskola tailerrak eta lanbide etxeak sortuz, inbertsiorako udal fondoak sortuz, e.a.

Ordezkarri berriek aipatutako eginbehar hauetan, hau da, langabetuei norabidean eta enpresarako izpirituaren bultzapenean, arrakastarik handiena izan dezaten nahiko nuke bihotz-bihotzez.

Antonio Matias Ortiz de Zarate

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Haurren tanberrada zergatik ez dute Trinitate bezperan laga? Udaletzeko Kultur Teknikariarekin egon gara eta zera esan digu: egun horretan Nagusien tanberrada dago eta egun berean bi tanberrada jartzea gehiegizkoa da. Trinitate egunean ipintzeko saiakera egin da baina beste iharduera batzuk daude antolatuta.



KEXAK

Emakume batek bere errezela azaldu nahi du alkate eta zinegotziek duten euskara ezagupenari buruz, BARRENen irten diren datuei dagokienean. Berak esan digunez, datozen lau urteotan ikusiko dugu benetan euskaraz zeinek dakien eta zeinek ez.



TXALOAK

Mendizale kuadrila bat jarri da harremanetan BARRENekin Morkaiko Mendizale Elkartea txalotzeko. Elgoibarko mendi itzuliak izan zuen antolakuntza eta partaideek izan zuten harrera (bazkaria tartean), benetan txalotzekoak izan omen ziren. Beraz, zorionak antolatzaileoi mendizaleen partetik.

Gehigarri bat

BARREN astekariko 108 zenbakian kaleratutako eskutitz bati jarria diot erreparoa. “3. milaurtekoa” izenburuaz kaleratu zen. Azken lau urteotan Elgoibarren egin diren gauza onuragarriez mintzo da Garate jauna. Baina leiala izango balitz ez lituzke egun garrantzi handiagoa duten arazoak ilunpean utziko: Langabezia, drogomenpekotasunak, gazteak, HIESa...

Zergatik ez dituzu herriaren onurarako egin dituzuen ekintza horien artean sartu? Ez al da arazo horiei muzin egin diezulako izango? Eta zer diozu Kultura Batzordeko lehendakaritza kargua bete duzunean Gazte Asanbladak egindako eskariei uko egin zenionekoaz? Maiatzaren 26an Diario Vascon egindako azalpen eta gezurretan esan zenuenez, ondare publiko bat ez omen dago ekintza bat antolatu nahi duen ororen edo edozeinen eskuetan uzterik. Barkatu, baina Gazte Asanblada baino antolamendu gutxiagoko kolektiboek ere utzi dizkiezu ondare publiko horiek. Kulturaren zentsuratzaile zaren horrek jakin ezazu, kultura batzuen zein besteen eskutik etorri, kultura bera da eta kitto.

Eta zer diozu Siadecoren inkestaren bahiketaz? Eta soldaduzkaren inguruan duzuen interes faltaz? Zergatik ez dituzu herriaren alde eginiko ekintza onuragarri horien barruan sartzen? Akaso arestian aipatutako ekintzak ondo eginak baleude ez al zenituzke lista horretara lotuko?

Administrazio barrutik arazozen tratamenduen azkartasuna eta zerbitzuen kalitatea hobetzea agintzen duzu. EA EGIA DEN!!

Eta zer diozu hauteskunde aitzineko alkoholaren prebentziorako kanpaina farsa hari buruz? Eta duela lau urte agindu eta egin ez dituzuen gauzei buruz? Eta...

S.E.

Euskarak akordioak behar ditu

Orain dela urtebete, Euskal Autonomi Elkarteke herritar eta euskaltzaileen artean halako poza somatu zen AEK eta HABEren arteko elkarrizketak hasi zirelako eta handik lortuko zelakoan helduen euskalduntze alfabetatzeak urteetan jasadako gatazkari behingoz konponbidea ematea.

Elkarrizketa hauetan, nahiz eta akordio batzuk lortu hainbat puntutan, beste zenbaitetan ezadostasunak daude, beraz, oraindik ez da sinatu akordio orokorra, horrek AEKri dakarkion kaltearekin (ikasturte honetako euskaltegi librean subentzioak zintzilik, funtzionarioei klase subentzionauek ezin emana...) zein gizarteari (itxaropen galtzea, gatazka giroaren jarraipena...).

Desilusio eta ardura giro hau EAEn bizi badugu, zer esanik ez Nafarroan eta Iparraldean; lehenengoan, gero eta pertsona gehiago izan arren euskara ikasteko nahia dutenak, Gobernuak gero eta mozketak gehiago egiten diharduelako laguntzetan dekretuen bidez, eta Iparraldean oraindik ez euskara ez AEK ofizialki onartu gabe daudelako.

Egoera hauen aurrean, adiministrazioekiko oztopoak gaintitu eta akordioak lortzearen aldeko manifestazio nazionala deitu du AEK hilaren 10erako Bilbon.

Elgoibarko AEK euskaltegiak dei egiten die herritar guztiei bertan parte har dezaten.

AEK Euskaltegia

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Ramon Maiztegi** lagatakoa da. Futbol txapelketak amaitzeaz daudenean, gogoratu 1go mailan Real Madridek irabazi duela eta 2.ean Eibar promozioa jokatzeko ahaleginetan dabilenean, interesgarria iruditu zaigu denboran atzera egin eta C.D. Elgoibarren erretratu bat ateratzea.

Berau 1940 urtearen ekainaren 21ean Arrasateko

Maala futbol-zelaian ateratakoa da. Ramonek esan digunez elgoibartarrek 4-1 irabazi zieten arrasatearrei.

Ikus dezagun zeintzuk diren erretratuan azaltzen direnak: Zutik, ezkerretik hasita: **Mikel Gorostiza, Sabin Gorostiza, Antonio Unzueta "Moskote", Gabriel Gabilondo, Anacleto Salaberría, Luis Mugerza, Pedro Arosa eta Ricardo Suarez.**

Makurtuta: **Julian Jainaga "Eperra", Ramon Maiztegi eta Jose Mari Igartua (†).**





IPINTZA

Pinturak

DEKORATZAILEA

- Pintura eta paperen salmenta
- Moketak eta sintasolak jartzen ditugu
- Zoru eta hormen apaindurak
- kortinak saldu eta ipini
- kortinen erakusketa Errosario kaleko 7an

Foruen Plaza 4, ELGOIBAR. Tel . 74 04 40

Balego, balego...

Joan den igandean, Trinitate jaien atarian, haurren tanborrada izan zen. Bihar, berriz, hilak 10, nagusien tanborrada aterako da 9 urtez desagertua egon ondoren. Jakin ahal izan dugunez, orain dela urte asko hasi zen Elgoibarren ohitura hau. Baina, kontuak kontu, antolatzeari utzi zitzaion 1973an berreskuratu zen arte. Hamahiru urtez iraun zuen baina 1986an entzun genituen tanbor hotsak herriko kaleetan azken aldiz. Bizitzaren zikloak errepikatu egiten direla eta, oraingo honetan, hirugarren aldiz gazte batzuk elkartu dira eta tanborren zein barriken burrunba entzuteko aukera eskainiko digute.



AZKUE



AZKUE

■ ■ Goian ikus daitekeen bezala, tanborrek eta barriek ezezik sukaldariak ere osatzen dute tanborrada. Hasieran emakumezkoak kantinera bezala bakarrik joaten ziren tanborradan.

Urte asko dira Elgoibarren lehen aldiz tanborrada egin zela. Garai hartan Etxegiña bertsolaria zen zuzendaria. Baina, arazoak tarteko, antolatzeari utzi zitzaion. 1973an, ordea, gazte talde batek tanborrada berreskuratzea pentsatu zuen. Eta hala egin. Deialdia egin zuten eta kuadrila asko eta asko animatu ziren, 70 pertsona inguru guztira. 1973an, Trinitate bezperan, atera zen tanborrada. Urte hartan ohizko soldadu

frantsesak eta sukaldariak ezezik, kantinerak ere atera ziren bai eta karroza bat ere. Karroza gainean erregina zihoan, pospolin jantzita. Kantinerak eta erregina ziren tanborradan parte hartu zuten emakumezko bakarrak.

Elgoibarko Izarraren esku

Bigarren etapa honek zenbait aldaketa izan zituen tanborradaren ardura Elgoibarko Izarrak hartu zuenean. Horien artean garrantzitsuena karrozari eta emakumezkoen

paperari buruzko eztabaida izan zen. Elgoibarko Izarra herriko elkarte ezberdinekin elkartu zen eta eztabaida batzuen ondoren erregina eta kantinerak kentzea erabaki zuten, nolabait emakumezkoaren irudi hura ezabatuz. Orduetik aurrera karrozen ordez bestelako muntaiak egiten zituzten. Behin baserri baten maketa egin zuten, beste behin sagardotegi bat eta behin edo behin protesta gisa ere erabili zen karroza. Urte horietako batean King-Kong-a

HAINBAT DATU

- 1973an berreskuratu zen tanborrada Elgoibarren.
- 70 mutilez osatu zen taldea.
- Iraun zuen 13 urtetan Antton Bergara izan zen zuzendaria.
- Gazte talde baten esku zegoen antolaketa Elgoibar-ko Izarraren eskuetara pasa zen eta handik Konporta elkartera.
- 13 urtetan behin bakarrik egin zuen euria. Suspenditu egin behar izan zen Bandakoek euriarekin jotzerik ez zutelako. Halere, tanborrada egin zen, musikarik gabe baina tanborren eta barriken soinuaz.
- Tanborrak apurtzen zirenean beraiek konpontzen zituzten. Nahiz eta soinu kaskarra izan, saltzen zen larrurik gogorrena erosi eta nola edo hala konpotzen zituzten.
- Barririk Azkoititik ekartzen zituzten, Santa Klara konbentutik. Elgoibartarrak konbentura joan eta klausurako mojak ikusi gabe, horma baten atzetik beraiekin hitzeginaz, barririk hartu eta itzultzen ziren. Bueltan, bakailaoa ematen zieten ordain gisa.
- 1986an atera zen azken aldiz nagusien tanborrada.

egiten ari zirela eta horren aurkako jarrera azaldu asmoz, maketa bat eraiki eta azpian lema bat idatzi zuten, eraikuntzaren aurka.

Ubitarten hasten zen tanborrada, herriari buelta eman eta Plaza Haundian amaituz. Guztira hiru pieza jotzen zituzten: Iriarena, Tatiago eta Diana.

Urteak pasa ahala Elgoibarko Izarrak antolatzaile izateari utzi egin zion eta Konporta elkarteak jaso zuen bere esku. Halere, Elgoibarko Izarrak jarraitu zuen karroza egiten. Konportaren esku geratu zenean hasi ziren taldeko afariak egiten, giroa gehiago epeltzeko asmoz edo.

1986, azken urtea

Horrenbeste urtetan iraun zuen tanborrada 1986an atera zen azkenengo aldiz. Urteak aurrera, jendeak bestelako eginkizunak ere bazituen eta bizitzak berak bultzatuta edo, antolatzeari utzi zioten. Poliki-poliki Trinitate jaiak tanborradarik

gabe bizi izatera ohitu ginen. Aurtan, berriz ere, gazte talde bat bilduda, deialdia egin zuten eta ekainaren 10ean, 130 lagunez, neska-mutilez, osaturiko tanborrada aterako da herriko kaleetara. Hilabete daramate entsaiatzen eta aurrekontua iristen ez zenez, tanborrik eta

barririk gabe, ohol batzuen gainean makila batzuz joaz. Halere, ilusioa behintzat ez zaie falta. Poliki-roldegian afaldu eta gero, arropak jantzi, tanborrak hartu, oilaskoa prestatu eta kalez kale arituko dira Donostiako martxa, Iriarena, Diana, Polka eta Tatiago joaz.


Tanborradak non ote jatorria?

Kontu eta iritzi ezberdinak daude tanborradaren jatorria dela eta. Javier M. Sadaren bertsioak honela dio: Tropa karlistak Donostia hartua zuen urtea zen. Gauerdio, Donostiako zenbait okindegitako langileak San Vicenteko iturrira joaten ziren ur bila, ur hau barriketean garraiatzen zutelarik. Okinekin batera beste langile batzuk ere joaten ziren bai eta goizean goiz esnatzen ziren asko ere. Ordu horretan, baita ere, guardia-eren erreleboa egitera harresi aldera abiatzen zen komitiba bat, tanborren soina jarraituz. Ura hartzeko zain zeudenak barriketean jotzen zuten tanborren hotsa imitatuz. 1836an, urtarrilaren 20ko gauean, sagardotegian afaldu eta epel-epel egin eta gero, etxerantz zihoan lagun talde bat. Guardia pasatzerakoan hauen atzetik hasi ziren, imitatuz, eta iturrian zain zeudenak ere atzetik jarraitu zuten. Hor sortu zen tanborradaren lehen simulakroa. Ohiturak jarraitu egin zuen eta hainbat eta hainbat mozarrotzen hasi ziren. Beranduago uniformatu zen tanborrada, gaur egun ezagutzen dugun tanborrada.



AZKUE

■ ■ 1973an atera zen berriz ere tanborrada. Antton Bergara izan zen zuzendaria. Etxegiña bertsolaria, garai batean tanborradako zuzendaria izanikoa, Anttoni hurreratu zitzaion zorianak emanez tanborrada berreskuratzeko.



ASTE HONETAN

Paga, zertarako?

Seme-alabak oraindik haur direnean, beren errealizazio pertsonalerako, dirua bigarren mailako gorabeheratzat har dezaten ahalegintzen gara gurasook; balore kontuetan dirua ez dadin izan lehenengoa, alegia. Baina kontraesan sartzen ditugu, bizitzea egokitu zaigun gizartea erabat kontsumista baita eta den-dena diruaz neurtzen baita.

Testuinguru honetan, beraz, ez da erraza neurtzen zenbat diru eman behar den pagarako, edo zertarako den paga bera ere.

Zenbat? Hori familia bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera da.

Zertarako? Gurasook irizpide batzuk marka ditzakegu noski, baina gastatze-eran inguruak indar handiagoa duela ezin ukatu.

Pagaren helburuetan bi norabide ageri dira. Lehenengoaren asmotan, paga gastatzeko izaten da; hori du berehalako helburua. Baina badu bigarrenago bat ere: aurrezte-zentzua ere eman nahi izaten zaio, aurrezten ikastearena, datozkeen txango, Sanbartolo, konpromezu, kapritxo


etab. etarako fondo bat izatearena.

Ematen zaien paga nahikoa al den galdetuz gero seme-alabei, ezetza ziurtatua duzu, inoiz ez da nahikoa; zenbat eta gehiago eduki orduan eta behar handiagoak sortzen dira.

Paga hori zertan gastatzen den jakitea guztiz garrantzikoa dela uste dugu, gurasook beti saiatu behar baitugu horretarako irizpideak markatzen, beti ere seme-alaben ekimena eta autonomia errespetatuz, noski.



AMAIA ESCUDERO



ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEAN

ADMINISTRARI BAT BEHAR DA ORDUKA LAN EGITEKO

BALDINTZAK

- Euskara ondo menperatzea
- Ordenagailuen ezagupena
- Kontabilitatea menperatzea
- Elgoibartarra izatea

Interesatuok bidali curriculum-ak ekainaren 16a baino lehen.
Informazio gehiago: Ubitarte 4, behea. Tel. 74 16 26

Paga nahikoa jasotzen al duzu?



OIHANE GARATE

8 urte, 2. maila

Bai, batzuetan 100 eta beste batzuetan 200 baina gehixo nahiko nuke. Amamak, tiak... ematen die eta jaixetan normalian diru gehixao jasotzen dot.



JOSEBA DE DIEGO

6 urte, 1.go maila

Asko ematen didate. Txutxeriak erosten ditut eta itsulapikoan sartzen dut sobratzen dena baina nere anaiak ez. Jaietan tiobibotetan gastatuko dut diru guztia.



MIREN AGIRRE

7 urte, 2. maila

100 edo 200 eta beste batzuetan nere tiok 500. Trinidadietan diru gehixao gastatzen dot eta horregatik paga haundixaua emango diatela pentsatzen dot.



CARLOS FEIJOO

10 urte, 4. maila


Horrela-horrela. Zinera juten eta txutxeriak erosten gastatzen dot. Jaixetan autodetxokietan ibiliko naiz eta seguruenez, ez dot gehixegi ahorratuko.



MAITANE BLANCO

7 urte, 2. maila

Ez, gutxi da. Askoz gehixao hobe, karameluak, gusanituak eta holakuak erosteko. Oin, jaixetan piskat gehixao emango diatela uste dot.



IVAN GONZALEZ

9 urte, 4. maila

Paga asko ematen diate, baina ahorratu oso gutxi. Gehixena palomitetan gastatzen dot. Jaixak diañez paga gehixao eman-go diate seguruen.

Gabi JATETXEA



- GOSARIAK • PINTXOAK •
- (8,30etatik aurrera)
- MENU BEREZIAK

JANGELA:

Astelehenetik larunbatera IREKITA
Astelehenetik ostegunera GAUEZ ITXITA

Trinitate jai zoriontsuak!

Nafarroa enparantza. Tel 74 12 30

■ Autobusa AEKren manifestaziora

AEK euskaltegiak helduen euskalduntze alfabetatzearen inguruan, Euskal Autonomi Elkarteko, Nafarroako eta Ipar aldeko administrazioekin hitzarmenak lortzearen alde, hilaren 10ean Bilbon izango den manifestaziora joateko autobusa antolatu du. Izena emateko Oiz-Mendi tabernara eta AEK euskaltegira zuzendu. Autobusa arratsaldeko 4,15etan aterako da Sigmako zubitik.

■ Odol ateraldia 16an

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko talde batek aurrez deitutako emaleei odola aterako die hilaren 16an Pedro Migel Urruzuno 8ko lokalean. Uda garaia hurbiltzen dagoela eta emale kopurua jaisten dela eta, elkarrekin deialdi zabala egin nahi du herritarren artean emale izatera anima daitezen. Hortaz, arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara bitartean odola eman nahi duten 18 urtetik gorako guztiak pasa daitezke Emaileen egoitzatik.

■ Alcer-ek informazio mahaiak jarriko ditu

Gipuzkoako Giltzurrunetako Gaitzen Aurkako Elkarrekin, ALCER-ek, mahai informatiboak jarriko ditu kalean, larunbat honetan, hilak 10, emale berrien eskaerak jaso zein informazioa eskaintzeko. ALCER elkarrekin datuen arabera, giltzurruneko 123 transplante egin ziren 1994an, eta korneakoak, berriz, 196 izan ziren. Urte bukaerarako, Cruces-eko eritexean gibeletako transplanteak egiteko asmoa dago eta aipatu baita ere, Euskal Autonomi Elkartean organoen donazioetatik, hirutik bi, donazio anitzak izan direla, hau da, giltzurrunaz gain, oinarritzko beste organo bat ere eman dutela.




AZKUE

Mozart laukote poloniarrek aparteko kontzertua eskaini zuten asteazken arratsaldean. Maila handiko musikari hauen presentziak ez zuten Herriko Antzokia oso-osorik betetzetik lortu baina bertan egon zirenek aparteko kontzertua entzuteko aukera izan zuten. Elisabeth Podolak flautarekin, Waldemar Machmar biolinarekin, Grzegorz Kawka biolarekin eta Aleksander Mikolajzyk kontrabaxuarekin aritu ziren. Laukotea osatzen duten musikari hauek goi mailako interpreteak izateaz gain, irakasle ere badira, eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoko kide izan dira.



Txirrindularien Lagun taldeak antolatuta, eskolarteko txirrindularitza lasterketa burutu zen Ibaizarte industrialdean joan zen larunbatean. Deba bailarako eskoletako alebinek eta infantilek hartu zuten parte, sailkapena honela geratu zelarik: alebinetan David Ferreiro *Lagun Taldeko* txirrindularia izan zen irabazlea, ondoren Zumarragako David Espinosa sartu zen helmugan eta hirugarrenik Okoitz Bonaetxea Eibarko txirrindularia. Lehen urteko infantilen lasterketa Zumarragako eskolako Julen Etxezarretak irabazi zuen, bigarren Igoitz Gabilondo izan zen Bergarako taldekoa, eta hirugarren sailkatu zen Zumarragako Aitor Alberdi. Bigarren urteko infantilen lasterketan Azpeitiko Ruben Ibartutxi helmugaratu zen lehenbizi, Arrasateko Jose Mari Galan ondoren eta azkenik, Imanol Aranburu, azken hau azpeitiarra.



AZKUE

Aurten 50 urte betetzen dituzten elgoibartarrak, 1945ean jaiotakoak, joan den larunbatean elkartu ziren urteurrena ospatzeko asmoz. Duela bost urte hasi zen elkartzeko ohitura. Egitaraua eskutik-eskura pasatuz, hutsik egin gabe, urtez urte berritzen da. Elizkizuna, luntxa, bazkaria eta dantzaldia izaten dute eta, nola ez, egunaren oroigarri modura, hona hemen argazkia. 106 herritar batu omen ziren, aparteko eguna igaro zutelarik eta datorren urtean, 50 urte betetzen dituztenak ere, ziur batuko direla.

■ Bertso afaria

Kimetz elkarteak bertso afaria antolatu du hilaren 16rako, ostirala. Unai Iturriaga eta Igor Elorza afarian puntua jartzen egongo diren bertsolariak dira. Afarirako txartelak salgai daude 1.250 pta.n Jai-Alai eta Oiz Mendi tabernetan. Hilaren 14a baino lehen egitea komeni da.

■ Ur eta zabor zergak


Aurten bigarren hiruhilabetekoari dagokion ur, zabor eta estolderiaren errezihoak ordaintzeko epea hil honen 23an amaituko da, goizeko 11etatik 1era bitartean Udaletxeko bulegoetatik pasa daitekeelarik. Epearen barruan ordaintzen ez dutenei %20 gehiago kobratuko zaie. Ordainketa errazteko ordainagiriak helbideratzea gomendatzen du Udalak.

■ UEUra joateko dirulaguntzak

Uztailaren 17tik 29ra bitartean Iruñeko Larraona ikastetxean burutuko den Udako Euskal Unibertsitatera joateko, Elgoibarko Udalak ikastaroaren matrikula osoa ordaintzeko aukera emango die, beka gisa, langabetu eta ikasleei. Bi astetan zehar mintegi, praktika, jardunaldi eta makina bat emanaldi izango dira, eta ikastaroak ere beste horrenbeste, hala nola, antzerkilaritza, artea, musika, ekonomia, kultur gaiak, soziolinguistika, kimika, fisika, informatika... Informazio gehiago nahi izanez gero Udal Euskara Zerbitzura deitu (74 43 66), edota bertatik pasa.

■ Ehiza txakurren lehiaketa

La Union Ehiza eta Arrantza elkarteak ehiza txakurren "Trinitate Saria" antolatu du larunbat honetarako, hilak 10. Txapelketa Albitxuriko zelaian izango da eta hiru mailatan banatuta dago: irekia edo guztientzat, bazkideentzat eta herritarrentzat. Ehiza txakurrak ingelesak eta kontinental arrazakoak dira eta galeperrek ehizatuko dituzte. Irabazleei garaikurrak eta dirua banatuko zaie sari modura.



INLOZU, C.B.

KROMATUAK ETA PABONATUAK

- Leguntzeak
- Nikeldura eta margotze disdiratsuak *Trinitate Jai*
- Margo ilunetan adituak
- Labean sikaturiko pinturak (simurgarriak, etab...)
- Pintura ixurketak (ugar kentzea, garbiketak eta piezen margoketa)

P. Muguruza Etorbidea, 14- ☎ 74 16 31-ELGOIBAR

IRIONDO Taberna

P. Muguruza 2, ELGOIBAR

Kartutxo Pub



S. Frantziska 33 ☎ 74 27 24

Gotzon Garate:

Elgoibarren jaio zen 1934an. Madrileko Unibertsitate Complutensean doktoregoa egin zuen filosofian, Insbruckeko Unibertsitatean teologian lizentziatu zen, Suizako Friburgoko Unibertsitatean soziologia marxistan espezializatu zen eta Deustuko Unibertsitatean Filologia

erromanikoan. 1978an berak bultzatu zuen Euskal Filologia karrera Deustuko Unibertsitatean. Katedratikoa da, klaseak ematen ditu, bidaiari amorratua da, 10 hizkuntza dakizki eta, mementuz, 21 liburu idatzi ditu. Gotzon Garate da. Jesuita.

- 10 hizkuntza jakitea ez da gauzarik arruntena.

- Nik beti izan dut hizkuntzak ezagutzeko jakinmina. Batez ere, bidaiatzea, kultura ezberdinak ezagutzea gustatzen zait eta erarik onena jendearekin hitzegitea da eta horretarako, noski, hizkuntzak ezagutu behar.

- Esaiguzu zeintzuk dakizkizun.

- Defenditzeko moduan lehenik eta behin nire ama hizkuntza dena, euskara. Gero, espainola, latina, ingelesa, frantsesa, rusoa, alemana, italianoa, hindua eta grekera.

- Latina jesuitetan ikasi zenuen garaikoa, ez?

- Bai. Nere garaian, Jesuitetan nengoela debeatua geneukan latina ez zen beste hizkuntza batean hitzegitea. Klaseak latinez ziren eta gure artean, ikasleon artean, latinez hitzegiten genuen. Erabat menperatzen iritsi ginen, noski.

- Munduan zehar asko ibilia zara.

- Bai, bidaiatzea izan da eta da nire bizitzan dagoen zatirik garrantzitsuenetakoa. Toki asko ezagutzen ditut, kultura ezberdinak, jendearen bizitza... Bizitzeko ezagutu dudana hiririk onena,



“Ume baten ahotik amak ez duela maite entzuteak inpresionatzen nau”

era guztietako gauzak ikusteko, New York da eta nazioa, India.

- Zerk egin dizu inpresiorik handiena?

- New Yorken bada jendeari aholkuak emateko zentru bat. Behin 8 urteko ume bat etorri zen, etxetik ihes egin zuena. Neu hurbildu nintzaion eta ea zergatik ihes egin zuen galdetean, “amak ez nau maite” erantzun zidan. Barruraino sartu zitzaidan. Amarekin hitzegitera joan nintzen baina ez zion graziazirik egin, azkenean kontaktua galdu nuen haiekin

eta izugarritzko pena daukat.

- Nola definituko zenuke zeure burua?

- Euskaldun izatearen kontzientzia 13 urterekin hartu nuen, hizkuntzak ikasten hasi nintzenean. Horrenbeste hizkuntza ikasten ari eta zer nintzen bada ni? Euskalduna. Euskalduna izatea nire pertsonalitatearen zati garrantzitsua da. Katedratikoa ere banaiz, noski, baina obligazioz gehienbat. Nire benetakoa afizioa, berriz, idaztea da.

- Euskara aipatu duzu-

nez, zein egoeratan ikusten duzu?

- Lehengo egunean irakurri nuen Euskal Herriko gurasoen %70ek beraien seme-alabak euskaraz ikastea nahi dutela. Hori oso pozgarria da etorkizunari begira, oraingo seme-alabak baitira biharko gizon-emakumeak. Herri baten izpiritua jakinduria da eta jakinduria hori erdaraz ematen bada, kitto. Irakaskuntza euskaraz ematea izugarritzko lorpena izan da. Oraindik unibertsitatea falta da eta hori lortzen denean benetan urrats handia emango da.

- Noizko zure hurrengo liburua?

- Orain argitaratuko dut esaera zaharren bilduma bat. 28 urtetan zehar baserrietan ibili naiz eta 13.000 esaera bildu ditut, euskal esaera horiek gaztelaraz eta ingelesez ere nola esaten diren jarriz.

- Esaguzu, bada, esaera-zen bat.

- “Alperraren kolpea, zuzena”, “nolako laguna halako jarduna”. Azken esaera honi buruz nik beti esaten dut nahiago dudala baserri baten tortila bat jatea Gran Vian langosta jatea baino.

Txiki BARREN

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 13. GEHIGARRIA



Ekainaren 17an Pilar ikastetxean Gurasoen Eguna ospatuko da urtero bezala. Aurten ere, haurrentzat ezezik, haien gurasoentzat ere hainbat eta hainbat ekintza antolatu dituzte, guztiek batera egun polita pasa dezaten. Zaku karrerak, futbol partiduak, musika, paella lehiaketa... denetarik izango da. Festa gehienetan bezala, Gurasoen Egunean ere izaten da bazkaririk, Pilar ikastetxean bertan eta jai giroa luzatu nahi duenarentzat ere, gau partera, arratsaldeko ajeak asetzeko edo, afaria antolatzen da urtero. Eguraldiak laguntzen badu aukera ederra izango da ikastetxea gurasoei gerturatzeko, euren, seme-alaben eta irakasleen arteko harremanak sendotuz.

txiki txistea

Treanean, emakume batek zera galdetzen dio ikuskariari:

- Aizu, jaitsi al naiteke hurrengo geltokian?

Piska batean gogoetan egon ondoren, erantzuten dio ikuskariak:

- Nahi baduzu, proba egin; baina kontuz, trena ez da geratzen eta.



● *Inazio Bereziartua Musikeskola* ●

Solfeo, Koral, Instrumentu eta Dantza MATRIKULAK ZABALIK

■ IKASLE BERRIAK (5-6 urte) ■

- Izen ematea: ekainaren 1etik 15era
- Ordutegia: Astelehentik ostiralera 5etatik 7etara
- Gutxieneko adina 5 urte (1990. urtean jaiotakoak)

*Naguienezako
matrikula
zabalik!*

■ AURREKO URTEETAKO IKASLEAK ■

- Izen ematea: ekainak 1,5,7,8,12,14 eta 15
- Ordutegia: Goizez 10,30-12 eta arratsaldez 7,30-9
- Tokia: Merkatu Plazako bigarren solairua (tronpeta gelan)

Egun bat udalekuetan

Aurten ere, urtero bezala, ari zaigu uda hurbiltzen, eta sasoi honetan gero eta ohizkoagoa den udalekuen presentzia hasi gara somatzen. Zenbait haur eta gaztetxorrentzat udara, eguzkia, hondartza eta udalekuak, kasik gauza bera direla esan dezakegu, baina bada orandik sekula udalekuetan izan ez eta ezezagun gertatzen zaionik ere bai.

Beti esan izan da, udalekuak gauza arraro eta "ezezagunak" direla, hurrek olgetan egin etb.erako aukera duten leku bat. Arraro izate honek, sarritan dakar bertara joan aurretiko ardura, beldur, poz eta urduduritasun sentsazioa. Horregatik eta udalekuak izan dezakeen majia suntsitzeko asmorik gabe, desmitifikatze saio bat egin nahi genuke, lehenengo aldiz doazenak zerbait (asko ez bada ere) jakinda joan daitezten. Ez dakiela gerta batzuo gerta izan zaiguna: lehendabizikoz joan udalekuetara, piperrik ere ez jakin gabe (ez leku eta ez egin beharrekoa ere) eta bertan hoge

haurren ardura izatea tokatu (begiraleak izatea suertatu zitzaigun eta).

Artikulu hau ezezik, liburu oso bat ere bete daiteke udalekuetan aurki daitezkeen gauza, istorio, gertakizun eta anekdotak idazten hasita. Mila eratako udalekuak aurki ditzakezue, bakoitza bere eginkizun eta ezaugarriekin: mendi ingurukoak, itsaso ingurukoak, kirola, ingelesa, irekiak edo itxiak, ibilaldiak, natura aztertzeakoak... Baina guztiak eskaintzen dute orokorrean lagun berriak egiteko aukera. Jolasean nekatu arte ibiltzeko beta, ligatzeko aukera eta ahaztezina bihurtuko den egonaldia bilakatu dena.

Doanari aholkutxo bat: gaur egunean udalekuak eta aukerak ugariak dira, eta gomendagarria izan ohi da ondo enteratu eta nor bere gustuetara egokitzen dena bat aukeratzea.

Besterik gabe, joango den jendeari ondo pasatzeko esan, eta oraindik animatu ez denari kemen piska bat eman nahi genioke.



XABIER GORRITI

Zuhaitz
Astialdi Taldeko kidea

Ze iritzi daukazu*opor*.....rei buruz?



Ba... atsedena hartzeko, piska bat irakurtzeko eta, nola ez! kirol piska bat egiteko dira.

MELANY FERNANDEZ, 8 urte



Arko atsegin ditut, lagunekin primeran jolasten dudalako eta bater ere etxean lan gutxi egin behar delako.

GURUZNE URKIDI, 10 urte



Oporrak jaietarako dira, ez eskola, ez lan eta ez ezer. Orduan, mainak, badakizue, oporretan haurrei ez eman lanik.

SAIOA ALKORTA, 11 urte



Apg Of tk
6 wtvg

Galde debalde

- 1- Oinutsik aurkituko bazina kale erdian?
- 2- Zein amets nahi zenuke egia bihurtzea?
- 3- Nolakoa da zure ametsetako printze urdina?
- 4- Zein mirari egin nahi zenuke?
- 5- Nor gonbidatuko zenuke etxera bazkaltzera?
- 6- Zein kolorez margotuko zenuke Elgoibar?
- 7- Negartia zara?
- 8- Zerk poztuko zintuzke?

1. Ez nioke inportantziarik emango eta etxera bueltatuko nitzake zapatak jaztera.
2. Amets politen bat, baina ez dut batere gogoratzen.
3. Rubioa, begi marroiekin eta pertsona ona.
4. Jende guztia ona izatea.
5. Nere lagun bat eta makarroiak jarriko nizkioke jateko.
6. Granatez eta horiz.
7. Batzutan, mina hartzen dudanean eta bronka botatzen didatenean.
8. Norbaitek soineko bat oparitzeak.



Dwdgp Ccpugeq
13 wtvg

1. Lotsatu eingo nitzake, danak neri begira zeudela pentsatuko nuke eta korrika jungo nitzake zapatak jaztera.
2. Behin oso aberatsa nintzela eta ondo bizi nintzela egin nuen amets, hori nahiko nuke egia izatea.
3. Claudia Schiffer da nire ametsetako printzesa.
4. Animaliak salbatu, batzuk desagertzen daude eta.
5. Juan Carlos I.a. Arraultza prijituak patatekin jarriko nizkioke jateko.
6. Urdina eta zuria, Errealaren kolorekoa.
7. Ez.
8. Loteria tokatzeak.

Zer da...*moda*.....?

ANA MARIA RUIZ, 14 wtvg



"Gaur egun eramaten den erropa. Horterada bat gehiengoa."

IGOR TODRES, 13 wtvg



"Bereziki jantzi, ehun eta bitxien alorrean aldiune nahiz herri batean erabiliena edo ohitura handikoa denari deitzen zaio."

ALBERTO CASTRO, 9 wtvg



"Mutilek eta neskek ipintzen dutena da."

INAKI IGLESIAS, 8 wtvg



"Lehen neskek belarririkoa eramaten zuten eta orain moda da mutilek ere eramatea."

ASIER BARDUTIA, 10 wtvg



"Moda urtero aldatzen da. Batzuetan jantzi hortero batzuk daude modan eta beste batzuetan politak."

MARIA BILBATUA, 10 wtvg



"Gazteei atsegin zaiena, erropak adibidez. Larunbatean irteten direnak inpresionatzeko dela ematen du."

Denborapasak: ezetz asmatu!

1.

Nor da elgoibartar hau?



2.

Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?



SUSANA ALVEZ

13 urte

Geria egongo balitz lur azpitan zulo bat egingo nuke. Janarixa eta ura sartuko nituzke, egun asko irauteko bertan. Nere ustez toki aproposa da nahiz eta zulua eixia kostatzen dan.

IMANOL ALBIZU

8 urte

Hondartzara jun eta horma batian zulo bat egingo nuke eskabadora batekin. Han sartu eta harrixekin tapatuko nuke eta jolasian ibiliko nitzake, paretari ostikadak jotzen. Aspertutakuan urtengo nitzake kanpora.



Erantzunak: 1 - Ramon Mujika (Udal Kirol Teknikaria) 2 - Non izkutatuko zinateke?

OHOKO HAURENTZAT

Ekainaren 16an
ostirala

PATIN FESTA!

Plaza Handian

Euria egiten badu, Kiroldegan

ZIRKUITOA, FROGAK, MUSIKA eta MERIENDA!

Arratsaldeko 5etatik 8etara

Bakoitzak bere patinak eraman!

ANTOLATZAILEA:
Elgoibarko Izarra K.E.



LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia



Ainhoa Idarraga

Idarraga kafeak



- **Zer ordutan jaikitzen zara goizero?** ▶ Goizean goiz, oso goiz, zazpietan.
- **Zer gosaltzen duzu?** ▶ Kafesnea.
- **Asteko egunik onena? Eta txarrena?** ▶ Onena larunbata; txarrena, berriz, osteguna, merkatua dagoenez lan gehiago egoten baita.
- **Zertan pasako zenuke denbora?** ▶ Puff! Edozer gauzatan... beharbada paseatzen.
- **Egunkaria irakurtzerakoan, atzetik ala aurretik hasten zara?** ▶ Aurretik.
- **Zer irakurtzen duzu egunkarian?** ▶ Elgoibarko karta normalean.
- **Zeri begiratzen diozu pertsona bat ezagutzeko?** ▶ Begietara.
- **Lo hartzeko modurik goxoa?** ▶ Musika entzuten lokartzea.
- **Etxeko txokorik gustukoena?** ▶ Egongela, dudarik gabe.
- **Pelikula bat?** ▶ "Forrest Gump".
- **Animalia bat?** ▶ Txakurra.
- **Desio bat?** ▶ Loteria tokatzea.
- **Dirua, osasuna ala maitasuna?** ▶ Maitasuna.
- **Arropa erostean markari begiratzen al diozu?** ▶ Ez, gustuko dudana aukeratzen dut.
- **Siestarik?** ▶ Bai, egunero.
- **Zer oparituko zenioke gizonezko bati?** ▶ Hain da zaila, asko pentsatu behar da, ez dakit zer esan.
- **Eta emakume bati?** ▶ Emakume bati, loreak.
- **Zer musika ez zenuke sekula entzungo?** ▶ Abesti folklorikoak.
- **Politikoez fidatzen al zara?** ▶ Ez, ez daukat konfidantzarik.
- **Horoskopoa sinesten al duzu?** ▶ Ez, irakurri irakurtzen dut, baina sinistu ez.
- **Abesten duzu dutxan?** ▶ Ez.
- **Egin dizuten azken oparia?** ▶ Erloju bat.
- **Eta zuk egin duzuna?** ▶ Nik ere, erlojua.
- **Zerk haserretzen zaitu?** ▶ Norbaiten zain egoteak, puntuala ez izateak haserretzen nau.
- **Zeri diozu beldurra?** ▶ Bakardadeari, bakarrik geratzeari.
- **Bukatzeko, oporretan zer?** ▶ Oporretan ere, lana.

JOSEBA GOROSABEL

TRINITATE JAIAK

DOINUA:

Iparragirre abila dela

Pentekostesak pasa ta gero orain berriz Trinitade oraindik ezta urterik pasa berbera gertatu gabe. Jai bikain ta ederra, gauz bat dute okerra: gutxitxo irauten dabe; asteburua gutxienean, (BIS) ongi pasatu halere.

Fetxatik kanpo egonagaitik, ohitura zahar bat hara! Rekuperatu egingo dute behintzat ahal baldin bada, Tanborrada bikaina San Sebastianen haina. Zer nolako tanborrada! Eta urtero egon daitean (BIS) denok saiatuko gara.



ARNAITZ GORRITI

Ainhoa
Ondo pasa Jaiak! **KAFETEGIA**

ERREZABAL
Ondo pasa Trinitateak! **taberna**
Ermuaran-bide. Tel 74 26 33. ELGOIBAR

Sentsibilizazio kanpainari ekin dio Guraso Eskolak

Guraso Eskolaren ardura duen Hezitzen taldeak ikerketa bat egin berri du Elgoibarko OHO-ko ikastetxeetan, 7. eta 8. mailako ikasleen artean. Aipatu ikerketa, Guraso Eskolan, gurasoek seme-alabetaz planteaturiko galdez osatu zuten. Eskolak alde teoriko bat zeukan eta beste bat praktikoa zen, hau da, euren seme-alabei zer galdetu nahi liekeen aztertu zuten eta horren arabera egituratu zen ikerketa. Apirilean banatu ziren inkestak ikasleen artean eta erantzunak jaso eta gero, konklusio batzuk atera dituzte. Besteak beste, gazteak estresatuak eta agobiatuak bizi direla eskolatik kanpo egin behar dituzten ekintzetatik, krisi ekonomikoaz kezkatuak duadela, oraindik gurasok direla beraien erreferentzia ereduak, balio nagusiak gurasoen maitasuna, gertutasuna eta konfidantza dirlea eta askotan ez dira ulertuak sentitzen, bakardadea sentitzen dute eta beraien burua gutxien dutela.

Datorren astean hasita, hainbat akintza antolatu dituzte. Alde bateatik ikerketaren emaitzak eman asmoz, horien aurrean zer egin daitekeen azalduz, Guraso Eskola kale-



Gurasoek seme-alabei egin nahi lizkiekeen galdez osatu da ikerketa.

ra gerturatu asmoz eta herrian bertan sentsibilizazioa sor dadin.

Ekainaren 14an mahainguru bat izango da Kultur Etxean arratsaldeko 7etan. Gaia, "Familia prebentzio bide bezala" izango da. Gurasoen galderak ikasleei pasatzearekin bat, ikasleei aukera eman zitzaizen beraiek gurasoei galdetu nahi zietena azaltzeko. Hartara, ikerketak bi arloak lantzen ditu, gurasoak eta seme-alabak. Ekainaren 19an, ikastetxetara joango dira Hezitzen taldeko kideak. Alde batetik guraso-

en erantzunak emango dituzte eta bestetik komiki batzuk banatuko zaizkie ikerketak eman dituen konklusioak oinarritzat hartuz, situazio ezberdinak isladatu eta horiek klasean lantzeko. Azkenik, ekainaren 19tik 23ra, erakusketa bat egingo da Plaza Haundian. Kartelak jarriko dira ikerketaren emaitzak azalduz, sentimenduak, erreflexiorako bideak aztertuz eta, batez ere, Guraso Eskola kalera gerturatuz eta jendea sentsibilizatzeko asmoz.

HEMENDIK

BODEGA

AFARI MERKEAK
Gure berezitasunak:

- Kazuelatxoak
- Olagarroa
- Haragia erreta

Ondo pasa Trinitateak!

Pedro Muguruza 20. Tel. 74 25 00 ELGOIBAR

ecenarro

- Bct t w n q
gt t q r c m
- Uo g g p v l e v
gt t q r c m

Trinitate jai zoriotsuak!

San Frantzisko 10,
Tel.: 74 26 19

San Bartolome elizaren 3. fasea

- 1715etik 1744. urtera arte luzatu zen fase hau. 30 urte hauetan gangak, koroa, sakristia eta ezpataina eraiki ziren eta dorrearen obrari ere hasiera eman zitzaion.
- Beste askotan bezala, bitarteko urritasunak eragin zuen obren atzerapena. Halere, XVIII. mendean arazo ekonomikoek ez ezik, egoera sozio-politikoak ere mugatu zuen obren jarraipena.
- 1714. urtean "erloju-dorrea" deitzen zuten kanpandorrea eraikitzeko kontratua egin zuten. Aipatu kanpandorrea dorrea dagoen tokian zegoen baina gaur egun ez dago. Dirudienez, egurrezko estruktura sinple bat zen atea, leihoa eta teilatuan argizulo bat zituelarik. Kanpandorre honen egilea Domingo Aizpirtarte elgoibartarra izan zen.
- 1716ko uztailaren 8an eliza berriko maiordomoak eta Olasoko apaiz batek Ignacio Urzelai hargin eta igeltsero maisuarekin elizako gangak eraikitzeko eta igeltsari lana egiteko kontratua sinatu zuten. Urte berean, presbiterioko harmailak altxatzeko kontratua egin zen eta leihotarako 36 dozena beira erosi ziren.
- Elizaren gabeziak handiak ziren eta teilatua izan arren, gangak, koroa eta sakristia eraiki gabe zeuzkan eta kanpandorrea ere falta zitzaion. Halere, elgoibartarrek San Bartolome elizan lehen meza 1716ko abenduaren 29an izan zuten.
- Urte honetatik 1773ra arte Kalegoengo eta Olasoko San Bartolome elizek eman zuten kultura. 1773an, ordea, Olasoko eliza zaharra kultura itxi zen eta hiru urte geroago kanponsantu bilakatu zen.
- 1717an eliza barruko apainketa lanek izan zuten lehentasuna. Aldare nagusiko erretaula eta San

Bartolomeren nihisea Ignacio Ibarrak egin zituen eta alboko aldareak San Joaquin eta San Miguelen erretaulekin apaindu ziren.

- Urte berean Domingo Elorzak erregistro berriez hornitu zuen organoa eta Gregorio Lierno eskultoreari San Bartolomeren gorputz osoko eskultura egitea eskatu zitzaion. Era berean, parrokoak eta alkateak Elgoibarko Antonio Elorza maisu errementari ospetsuarekin tratua egin zuten azken honek pulpitu bat egin zezan. Pulpitu hau Animen aldarearen ondoko matxoian egon zen kokatua, arte lan handia izanik.

- Elorzatarrek burdin sare alorrean lan bikainak egin zituzten eta Marigorta eta Arrillagatarrekin batera garai ezberdinetan Elgoibarko izena Euskal Herrira eta Espainiatik zabaldu zuten.



PELLO ARRIETA

Glicerio Arruza

Palankaria (1906-1995)



- Galdames-en jaio zen, Bizkaian, 1906ko azaroaren 5ean.
- Palankaria izan zen. Euskal Herrian du jatorria kirol honek eta palanka bat jaurtitzean datza, jabalinaren antzekoa.
- 22 urterekin, 1929an, meategi batean lanean zegoela Bilbo inguruan, eskultore batentzat, Higinio Basterrarentzat hain zuzen, modelo gisa aritu zen. Bere ezaugarri fisikoek erakarri zuten eskultorea, 1,82 neurtzen eta 100 kilo pisatzen baitzituen. Palankari baten eskultura zen eta hasieran Aldundiko jauregian egon zen erakusgai. Gero Bartzelonako Erakusketara eraman zuten eta azkenik Gernikako juntetxera.
- Urte batzuen ostean, Elgoibarrera etorri zen lanera, fundizio batera. San Pedron lan egin eta hango buru ere izan zen.
- Irakurtzea oso gogoko zuen.
- Aurten hil da, maiatzaren 20an.

TXURI BELTZ

Taberna San Franzisko 38

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behe. Tel.74 28 74 - 74 05 70

MOTZAK

Euskadiko Eskalada txapelketa

Datozen 17an eta 18an, larunbata eta igandea, Euskadiko Eskalada txapelketa burutuko da Olaizaga kiroldegiko rokodromoan. Orain arte lau alditan egiten zen txapelketa, lau leku ezberdinetan, baina aurten lehen aldiz, leku bakar batean egingo da, Elgoibarren hain zuzen. Euskal Mendi Federazioaren baitako txapelketa honen antolakuntza Morkaiko Mendizale elkartearen esku geratuko da. Larunbatean, hilak 17, sailkapen frogak eta final erdiak izango dira eta igandean, besteak beste, finalak, azkartasun froga eta sari banaketa ekitaldia. BARREnek bere aldetik, eskaladari buruzko gehigarri berezia kaleratuko du datorren ostiraleko alearekin batera, eta larubatean eta igandean rokodromora joango den ikuslegoaren artean banatuko da.

Ping-pong txapelketa Olaizaga kiroldegian

Gaur, hilak 9, eta bihar, hilak 10, ping-pong txapelketa burutuko da Olaizaga kiroldegiak antolatuta. Bi kategoria egongo dira, bata 16 urtetik gorakoentzat eta bestea 16 urtetik beherakoentzat. Txapelketa azkarra izango da, ostiralean arratsaldeko 6etatik aurrera eta larunbatean goizeko 9etatik aurrera. Bi kategorietako irabazleei ping-pong materialez osatutako saria banatuko zaie eta partaide guztien artean erraketak, pilotak eta beste zenbait materiale zozketatuko da.



Asier Irureta:

"Piraguarekin leku oso politak ezagutu ditut"

■ **Noiztik piraguan?** - Lelengo kursillo bat ein naban, zortzi bat urte izango dia, eta gero piragua erosi naban, oin dala sei bat urte.

■ **Zer dela eta piraguismoa?** - Beti gustau izan jata, txikitatik ibiltzen nintzan inflatzeko txalupiakin...

■ **Teknikoki zein zailtasun dauka?** - "Eskimotaje" deitzen dana da zailena. Buruz behera gelditzen bazera arraunakin hasierako posiziora bueltatzia da. Ibai bizixetan ekilibriua mantentzia ere zaila da.

■ **Eskimotajea egiten ez badakizu...** - Kasu horretan buruz behera gelditzen bazera, piraguitik soltatzzen zera, erden eta bueltia ematen diozu.

■ **Apurorik pasatu al duzu?** - Bai, batez ere itsaso ona zauala irten izan naizenian. Itsaso onakin urten eta gero bueltan galerniak hartu eta bakarrik aurkitxu, txalekorik gabe...

■ **Eta egoera horretan, zer?** - Ba, ahal dan bezela portura ailegau eta susto galanta hartu. Baina hurrenguan ere, itsasua bare badao, berdin berdin urtetzen zera.

■ **Non ibiltzen zara?** - Deban gehixenbat. Erreka bizixetan ibili izan naiz, Bidasoan adibidez, baina gutxi.

■ **Itsasoa nahiago?** - Bai, itsasuak aukera gehixo daukaz. Ibili leike rian, itsaso zabaleran urten eta kostatik jun, Zumaira, Onda-



rrura... Surfistekin olatuak hartzen ere ibili leike.

■ **Kostaldea itsasotik ezberdina izango da, ez?** - Bai, lehorretik edo itsasotik desberdina da. Sakoneta inguruan kobak daude, eta piraguakin sartu leike. Mutrikun badao koba bat itsasotik bakarrik jun leikena, Zumaian kala antzeko bat dao, nahiko politxa dana, Igeldo azpitan ere...

■ **Leku politak ezagutu dituzu, hortaz?** - Bai, bai. Debatik Zumaiara joaten, dana da akantilaua. Marea goian dauanian itsasotik bakarrik jun leiken kala mordo bat dao.

■ **Lekuren batean ibiltzea nahiko zenuke?** - Seilla ibaian egiten den jaitsiera egingo nuke. Nere lagun Ezkurrearekin ere badaukat kostatik bost eguneko trabesia eitzekeo asmua.

■ **Ekipamendu aldetik zer da oinarritzkoena?** - Piragua, estalkia, arrauna eta txalekua. Neguan ibiltzeko neopreno bat ere ondo dator. Era askotako materialak daoz, fibria, plastikua... eta preziuak ere bai. Asko igo dia azken aldi baina ekipua ehun milatik gora urten leike.

- Adina: 24
- Beste kirolik? Korrika eta bizikleta
- Asteko egunik gogokoena? Ostirala
- Gorroto duzun zerbait? Examinak, adibidez

IRAKASLE ELKARTEA

ZEZENBIDE

auto-eskola

San Frantzisko 43,
☎ 74 27 20

Zazpi bat ordu mendirik mendi



■ ■ Txorizoa, salda eta kafea barra-barra ezinbestekoak indarra berreksuratzeko.

Errosario kaleko Morkaikoren egoitzaatik atera eta sei ordu eta berrogeita hiru minutu beranduago heldu zen lehen taldea irteera lekura egun osoa mendirik mendi eman ondoren. Irteera neurtua den arren, ez da lehiarako asmorik izaten. Dena den, iaz lehendabizi heldu zen taldea baino bizkorrago ibili ziren igandean lehenengoak, iazkoak baino 14 minutu gutxiago egin baitzuten. 70 mendizale abiatu ziren goizeko 6,30etan ibilbidea bete-tzeko burutu beharreko 43 kilo-

metroak egin asmoz. Goiza lainotua esnatu bazen ere, tenperatura aproposa izan zen mendian ibiltzeko. Lehendabizi zortzi laguneko taldea iritsi zen, eta ondoren, piskanaka piskanaka gainontzeko mendizaleak heldu ziren. Azken taldeak 10 ordu eta 30 minutu behar izan zituen ibilbidea burutzeko. Maltzaga, Karakate, Hirukurutzeta, Azkarate, Altzola, Bioin, San Migel, Morkaiko, Kalamua, Aubixa, Saturixo eta San Pedroko guneak egin zituzten besteak beste. Aurten aurreko edizioetan

IRITSIERA

1. **TALDEA** (6 ordu 43m)
 - Tomas Arrieta
 - Pedro Arrate
 - Alejo Nuñez
 - Jesus M. Gabilondo
 - Iñaki Arrieta
 - Tomas Peña
 - Juan M. Arakistain
 - Pedro Marin Perdonces
2. **TALDEA** (7 ordu 5m)
 - Jon Ulazia
3. **TALDEA** (7 ordu 43m)
 - Aitor Argarate
 - Julio Zubiaurre
4. **TALDEA** (8 ordu)
 - Felix Etxeberria
5. **TALDEA** (8 ordu 5m)
 - Julio Eibe
 - Iñaki Lehr
 - Agustin Gonzalez
 - Asier Arrieta
 - Isaak Bergaretxe

baino jende gehiagok hartu zuen parte, 70 mendizalek hain zuzen, eta elgoibartarrak ezezik, kanpotarrak ere izan ziren, zarauztarrak, laudioarrek eta eibartarrak esaterako.

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal



**URKIDI
AHOLKULARITZA**

*Ondo pasa
Trinitate
Faiak!*

ASEGUROAK
Kalamua 12 ELGOIBAR Tel-Fax: 74 18 91



DORI urdaitegia



Ondo pasa Trinitateak!

Erronkaria 11 92

magu's

ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA

San Roke 6 behea tel. 74 34 91

MOTZAK

Eskolarteko jokoan sari banaketa

Larunbat honetan, hilak 10, eskolarteko jokoan sari banaketa ekitaldia burutuko da Mintxetan eguerdiko 12etatik aurrera. Alebinetan parte hartu duten guztiek izango dute oparixoren bat eta benjaminetan eta infantiletan, lehendabiziko postuetan sailkatu direnei banatuko zaizkie dominak.

Ibai gimnasiokoak nazioarteko txapeldun

Joan den larunbatean Ibai Gimnasioko zazpi judoka Hondarribiko nazioarteko IV. Txapelketan izan ziren eta horietatik bi, Zuriñe Polo eta Aitor Gabilondo, txapeldun geratu ziren bakoitza bere kategorian. Garaipen hauen gain, bigarren posturik ere lortu zuten. Egoitz Mora txapeldunorde geratu zen 60 kiloz azpiko mailan. Gipuzkoako, Nafarroako eta Errioxako klubez gain, Frantziako biren aurka ere borrokatu behar izan zuten Ibaiko neska-mutilek Hondarribiko "Ama Guadalupekoa" txapelketan. Datorren igandean, hilak 11, Ibai gimnasioko 25 judoka Legazpian izango dira beste txapelketa batean aritzeko prest.

Nahaste Borrastea hilaren 21ean izango da

Kimetz elkarteak Nahaste Borrastearen 11. edizioa antolatu du aurten. Urtero bezala, bizikleta lasterketa, saltaka eta zakuarekin korrika izango dira burutu beharreko frogak. Bi kategoria izango dira, gazteentzat bata, arratsaldeko 7etan hasiko dena, eta nagusientzat bestea, printzipioz ordu erdi beranduago. Lasterketa herriko hau herritarrei zuzendua dago; hortaz, herriko gazte eta helduak, eta emakumeak batez ere, parte hartzera animatu nahi dituzte antolatzaileek. Izen-ematea lasterketa egunean bertan egin ahal izango da, lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago beranduenez.

aElgoibartarrak eskubaloian garaile



San Bartolome ikastolako 8. mailako Ikas-Xerox taldea Gipuzkoako eskubaloi txapeldun geratu da, Zarautzeko Eskuzortzi taldearen aurkako finalean 23-11 irabazi ondoren. Larunbat honetan, hilak 10, Euskadiko txapelketan parte hartuko dute eta bizkaitarren aurka jokatu dute final erdia eguerdiko 12etan Durangoko kiroldegian. Irabaziz gero igandean, Araba eta Nafarroaren arteko partdua irabazten duen taldearen aurka jokatu lukete finala. Argazkian Ikas-Xerox taldea. Ezkerretik hasita: Igor Lizarralde entrenatzailea, Gorka Landaburu, Ander Goikoe-

txea, Jose Sánchez, Kepa Mendikute, Julen Hernández, Josu Perea eta Zigor Esnaola entrenatzailea. Makurtuta, Unai Arrieta, Manu Ibarluzea, Gillermo Berdonces, Xabi Uribeetxeberria, Jonathan Martin, Ander Zabala, Jon Aierdi, Egoitz Gurrutxaga eta Asier Etxaniz.

Bestetik, Ikastolako 6. mailako Ikas-Levis taldea osatzen duten neskak Gipuzkoako eskubaloi txapelketako finalera iritsi dira eta azken partidua larunbatean jokatu dute Usurbilen, goizeko 10,30etan Donostiako Virgen del Carmen ikastetxearen kontra.



Eskubaloi Taldeko kadete mailako nesken taldea Kopako txapeldun geratu da. Final erdiko partidua 15-14 irabazi zuten Bergarakoen aurka eta finala 16-14 Ereintza taldearen aurka. Lorpena ez da makala izan, Bergarako tal-

dea Euskal ligako sailkapenean hirugarren postuan baitago. Elgoibartarrak Euskadiko Txapeldun eta Espainiako 5. geratu ziren iaz eta kadeteetan dabilzan lehen urte honetan emaitza oso onak izan dituztela begibistakoa da.

Trinitateetan musika, kirola eta Tanborrada

Astebukaera honetan jai giroan murgilduko gara. Udalak iaz baino aurrekontu murriztagoa dauka aurtengo Trinitate jaiak antolatzeko. Aurrekontuaren zenbatekoa 2.200.000 pta.koa da orotara eta iaz berriz, 3 milioikoa izan zen. Aurtengo egitarauan falta diren ekintzak marmitaku lehiaketa eta gaueko kontzertuak dira, baina azken hauen ordean, nagusien tanborradaren doinuak eta koloreak izango dira larunbat gaueko saltsan protagonistak.

Larunbat goizean kirol ekintzarako beta izango da. La Unio-
nek antolatutako ehiza txakur-
ren lehiaketa goizeko 9etan hasiko da Albitxuriko zelaian. Mintxetan, berriz, automodelismoa, parapentea eta eskolarteko jokoen sari banaketa burutuko dira goizeko 11etatik aurrera. Arratsaldean XII. Xake Txapelketa burutuko da Leku Ederren Zubi Ondo elkartearen eskutik, eta euria egingo balu, berriz, Kultur Etxera aldatuko litzateke. Arratsaldeko 6etan euskal folkloreak adierazgarri izango da Plaza Handian. Musikeskolako ikasleekin euskal dantzen saioa burutuko da. Gauez nagusien tanborradak kalejiran zeharkatuko ditu herriko kaleak. Musika Bandak bost pieza ezberdin joko ditu eta Plazan hasiko da gaueko 11etan. Igandean, Trinitate egunean, txistularien ostean, Eibarko musika Banda arduratuko da

berandu etxeratu direnak esnatzeaz. 11etan eliz abesbatzak meza nagusian kantatuko du, eta eguerdian, erraldoi eta buruhandien alardea izango da Arrasateko eta Zangozako konpartsekin batera. 12,30etan, Plaza Handian, Felix Lodoso elgoibartarraren zuzendaritzapean kontzertua emango du Eibarko Bandak ondorengo egitarauarekin: "Cielo Español" pasodoblea, "El carnaval Roman" obertura, "Oregon" gai amerikarrei buruzko fantasia, "La Generala" opereta eta "Juana de Arco" obertura. Arratsaldeko 4etan xake partida azkarrak hasiko dira Leku Ederren eta 4,30etatik 9etara bitartean txikienek Plaza Han-



■ ■ **Haurren tanborrada eta gero, larunbatean nagusiena.**

dian kokatuko den haurren parkean gozatzeko aukera izango dute. Zaharren Biltokiak, berriz, Gelatxorekin gerria eta hankak mugitzeko aparteko dantzaldia antolatu du arratsaldeko 6etan hasita. Ekintza mordo aukeran, gogoz partehartzea besterik ez da behar.



TINDATEGIA
*Ondo pasa
Trinitate jaiak!*
Foruen Enparantza 4
Tel. 74 00 91

TEXTIL HOGAR LAGUNAK

ESKAINZA Oihalgintzan zure etxerako behar duzun guztia daukagu.

Olaso kalea 54. Tel: 74 44 57 ELGOIBAR


Maria Urizar ileapaindegi mixtoa

TRINITATE JAI ZORIONTSUAK PASA!
Errosario 9-1 ezk. ☎ 74 44 89 ELGOIBAR

BETI S. L. ARGi.

*Erregalu artikuluak
Instalazio orokorrak
Sukaldeko tresneria*

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI" **Edari Banatzailea**



GURELSA



SANTA ANA 41. ☎ **74 10 41 - 74 11 32**

Salerosketak

INPRESORA BAT saltzen dut. Zuri beltzean. Ia berria.
☎ 74 20 95

Atxuri baserrian "COLIE" ARRAZAKO TXAKURKUMEAk dazkagu salgai.
☎ 15 04 41

1m x 0,70mko teknigrafoa duen DELINEAZIOARAKO MAHAI BAT saltzen dut. Prezio interesgarria.
☎ 74 22 29

Bi oheko (1,80m) LOGELA "PUENTE" BAT saltzen dut.
☎ 74 28 29
1,30etatik 2,30etara edo gauez

ERREPIDEKO BIZIKLETA BAT salduko nuke. Egoera onean dago.
☎ 74 28 56 Gaizka
Gauez deitu

CD ROM IRAKURLEA saltzen dut. Estreinatu gabe. SCSI. Hiru abiadura. CD arruntak ere irakurtzen ditu. (SONY CDU 55 S)
☎ 74 15 69

Garajeak

GARAJE BAT dut saltzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.
☎ 74 39 19

GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifizioan. 15m² eta bi planta.
☎ 74 25 01 / 10 82 43

Etxebizitzak

ETXE HAUNDI bat alokatzen da. Amueblatua
☎ 74 04 75

ATIKO polit bat daukat ALOKATZEKO.
☎ 74 23 67 (gauez)

SANTA POLAN bungalow bat daukat ALOKATZEKO. Hondartzako lehen ilaran. Ekaina, uztailko lehen hamabostaldia eta iraila.
☎ 74 27 02

Etxe bat SALTZEN dut ZARAUTZEN Amueblatua.
☎ 78 19 50

Pisu bat ALOKATZEN da uztail eta abuztuan DEBAN.
☎ 74 28 24

Etxe haundi bat ALOKATZEN da DEBAN, uztail eta abuztuan. Alamedan.
☎ 19 22 37 Idoia

Etxe bat ALOKATUKO nuke. Amueblatu gabe. Ez du inporta buhardilla bat izatea. Dutxa batekin.
☎ (94) 616 65 03 Maria Luisa

Apartamentu bat ALOKATZEN dut MARBELLAN udako hilabeteetan eta urte osoan. Hondartza ondoan. Urbanizazio pribatua igerilekuarekin.
☎ 10 36 55

Bestelakoak

FRANTSESEKO KLASEAK ematen ditugu.
☎ 74 04 59 (13,00-14,30 eta gauez 20,00etatik aurrera)

Aurreko astean hilak 3 San Frantzisko kaleko taberna batean urrezko eskumuturreko bat galdu nuen.
☎ 12 14 67 Montse

Hiru urteko UME BATEN PRAKA URDIN BAT galdu zaigu, Ubitarte inguruan
☎ 74 35 91

Elgoibarko antimiliak ARTXIBAGAILU BAT behar du merke-merke edo oparituta. Halakorik baduzue deitu.
☎ 74 02 09 Aitor

14 eta 15 urteko bi mutil gazte gara eta KITARRA KLASEAK hartuko genituzke.
☎ 74 37 23 Aitor

Lana

Emakume euskaldunak etxeko eta sukaldeko lanak edo nagusiak zainduko lituzke. 17 urteko esperientzia eta kotxeko karneta.
☎ 74 08 60

Tituludun Erizain euskalduna, etxetara erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.
☎ 74 02 33 Marta Diego Arrieta (Erizain diplomatua)

Pertsona nagusi edo gazte elbarrituak ZAINTEKO, etxeko lanak eta abar EGITEKO prest nago. Esperientzia daukat.
☎ (94) 616 65 03 Maria Luisa

Hildakoak


- Laurentino Gil Campos, 66 urte (Maiatzak 2)
- Jose Garagarza Olasolo, 78 urte (Maiatzak 4)
- Lucio Sasiain Etxaniz, 66 urte, (Maiatzak 5)
- Mercedes Lobera Usandizaga, 79 urte (Maiatzak 8)
- Francisca Cid Fernandez, 87 urte (Maiatzak 11)
- Glicerio Arruzza Urrestarazu, 89 urte (Maiatzak 20)
- Tomas Juaristi Arregi, 76 urte (Maiatzak 21)
- Jose Mauricio Suarez Etxeberria, 73 urte (Maiatzak 22)
- Manuel Ulibarri Zubieta, 81 urte (Maiatzak 23)
- Maria Iriondo Sodupe, 84 urte (Maiatzak 26)
- Juan Jose Beloki Evardone, 38 urte (Maiatzak 26)
- Tomas Leiaristi Ariznabarreta, 77 urte (Maiatzak 27)
- Julian Oteiza Agirregomezkorta, 78 urte (Maiatzak 27)
- Maria Zabaleta Elorza, 85 urte (Maiatzak 31)

Jaiotakoak

- Ioritz Leiaristi Egaña (Maiatzak 2)
- Garazi Otegi Arregi (Maiatzak 5)
- Olaia Quintas Fernández (Maiatzak 6)
- Ainhoa Puiadena Mier (Maiatzak 17)
- Itziar Aldalur Uranga (Maiatzak 25)

Ezkondutakoak

- Asterio Pérez Martínez eta Cristina Iriondo Leiaristi (Maiatzak 2)
- Benigno Rumayor Etxeberria eta Estibaliz Aranegi Ruiz de Viñaspe (Maiatzak 27)



San Frantzisko 12-14, Tel. 74 05 49

modak

San Bartolome 18
☎ 74 08 49

DEBAPE
INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa

- DISEINU GRAFIKOA
- OFFSET LITOGRAFIA
- FOTOKONPOSIZIOA
- PUBLIZITATE DISEINUA
- ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK

Olaso industrialdea, 27 • Tel.: 74 40 58 • Faxa: 74 41 78 • ELGOIBAR

9 OSTIRALA

22,30 TRIKILARI ESKOLAKOEN JAIALDIA

✓ Herriko Antzokian

10 LARUNBATA

9,00 PING-PONG TXAPELKETA

✓ Kiroldegian

9,00 EHIZA TXAKURREN ERAKUSTALDIA

✓ Albitxuriko zelaian
Antolatzailea: La Unión

11,00 AUTOMODELISMO ERAKUSTALDIA

✓ Mintxetan

11,00 PARAPENTE JAITSIERA

✓ Lurra hartzea Mintxetan

12,00 ESKOLARTEKO JOKOEN SARI BANAKETA

16,00 XAKE TXAPELKETA

✓ Leku Eder parkean
(Euria egingo balu Kultur Etxean)
Antolatzailea: Zubi Ondo Elkarte

18,00 EUSKAL DANTZA SAIOA

Musikeskolako ikasleak
✓ Plaza Handian
Antolatzailea: I.B. Musikeskola

22,15 ZINEA

"Estallido"

23,00 NAGUSIEN TANBORRADA

11 IGANDEA

9,00 DIANA udal txistulariekin

11,00 EIBARKO MUSIKA BANDAREN KALEJIRA

11,00 MEZA NAGUSIA ELIZ ABESBATZAREKIN

✓ Parrokian

12,00 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN ALARDEA

Elgoibarko, Arrasateko eta Zangotzako konpartsekin

12,30 EIBARKO MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

✓ Plaza Handian

16,00 XAKE AZKARRA

✓ Leku Eder parkean
Antolatzailea: Zubi Ondo Elkarte

16,30 HAUREN PARKEA

✓ Plaza Handian
(Euria egingo balu, Kiroldegian)

18,00 GELATXOREKIN DANTZALDIA

✓ Zaharren Biltokian

19,30-22,15 ZINEA

"Estallido"

12 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Estallido"

13 ASTEARTEA

22,15 ZINEA

"Amor Inmortal"

14 ASTEAZKENA

19,00 MAHAINGURUA

Familia prebentzio bide bezala
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Guraso Eskola

16 OSTIRALA

18,00 ODOL ATERALDIA

✓ Pedro Migel Urruzuno 8an

19,30 Orioko eta Elgoibarko musikeskolako KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

21,00 BERTSO AFARIA

Bertsolariak: Unai Iturriaga, eta Igor Elorza.

✓ Kimetz elkarte

22,15 ZINEA

"Historias del Kronen"

ZINEA

Estallido

Zuzendaria: Wolfgang Petersen

Antzezleak: Dustin Hoffman, Rene Russo, Morgan Freeman. Pelikula katastrofikoa da. EEBBetan milioika pertsona hiltzeko arriskuan daude birus hilkor bat hedatu baita. Gizarte osoa desagertzeko arriskuan dago eta norbaitek zerbait egin beharko du birusa geldiarazteko.

Amor inmortal

Zuzendaria: Bernard Rose

Antzezleak: Gary Oldman, Jeroen Krabbe, Johanna Ter Steege, Valeria Golina.

Beethoven musikariaren bizitza kontatzen du pelikulak. 1827. urtean hiltzen da eta bere heriotza eta gero, haren idazkari izandakoa musika-maisuak maitatu izan zuen "maitale inmortal" bilatzen saiatuko da. Izan ere, Beethoven-en azken borondatea da bere heriotzaren ondoren, jabetzan zuen guztia emakume misteriotsuarentzat izatea.

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
10, larunbata:	Yudego	Anduaga
11, igandea:	Yudego	Anduaga
12, astelehena:	Bidasolo	Escala
13, astearte:	Bidasolo	Escala
14, asteazkena:	Bidasolo	Escala
15, osteguna:	Bidasolo	Escala
16, ostirala:	Bidasolo	Escala

FARMAZIEN HELBIDEAK:

Escala: Rekalde, 1 SORALUZEI
Te. 75 16 38

Anduaga: Mendarozabal 1, Mendaro
Tel. 75 61 42/75 60 27

OKINDEGIA:







11, igandea: ZABALETA

ALKATE ETA ZINEGOTZIEN EJENPLUA NAHI

UDAL HAUTESKUNDEETARAKO

DUGU
KANPAINAN

EUSKARARI EMANDAKO TRATAMENDUA

	TXARTELAK	ESKU PROPAGANDA	MITINAK	MEGAFONIA	ALDIZKARIAK
	Euskaraz (%100)	Euskaraz %50 eta gazteleraz %50	///	///	40 orrialde: - 8 euskaraz - 9 gazteleraz - 23 bietara
	Euskaraz %50 eta gazteleraz %50	Euskaraz %50 eta gazteleraz %50	Ales A.: %100 eusk. Jon G.: %100 eusk. J.J. Irizar: %25 eusk. %75 gazt.	///	///
	Euskaraz (%100)	Euskaraz %50 eta gazteleraz %50	J. C. Marcos: %100 eusk. Pello M.: %100 eusk. X. Arribalaga: %100 eusk.	NAZIONALA ELGOIBAR %100 eusk. %50 gazt. %50 eusk.	16 orrialde: - 11 euskaraz - 4 gazteleraz - 1 bietara
	Euskaraz %50 eta gazteleraz %50	ELGOIBAR GIPUZKOA %95 gazt. %75 gazt. %5 eusk. %25 eusk.	///	Euskaraz eta gazteleraz	///
	Gazteleraz (%100)	///	///	///	///
	Euskaraz %50 eta gazteleraz %50	ELGOIBAR GIPUZKOA %60 gazt. %50 gazt. %40 eusk. %50 eusk.	///	Euskaraz eta gazteleraz	///



ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkartea

